## 2017ko AURREKONTUAREN LIKIDAZIOA

**Saila:** 02 DIPUTATU NAGUSIA

**Programa:** 92 BERDINTASUNERAKO POLITIKA

## SAILAREN MEMORIA

### I. MEMORIA

Aurrekontu programa honen helburua lortzeko honako jarduketa hauek ezarri ziren:

1. Berdintasunerako sailarteko egiturak (Sailen Arteko Batzorde Politikoa, Sailen Arteko Batzorde Operatiboa eta ad hoc lantaldeak) taxutu, eratu eta abian jartzea sailetan, institutuetan eta erakunde autonomoetan.
2. AFAko prozedura arruntetan eta politika sektorialetan genero ikuspegia sar dadin sustatzea, sarrera koordinatzea, laguntza ematea eta sarrera dinamizatzea.
3. AFAko langileentzat berdintasunaren arloko prestakuntza plan bat taxutzea eta ezartzen hastea. Plan horrek hainbat ibilbide eta espezializazio maila bilduko ditu, kasuan kasuko esku hartze motaren araberakoak.
4. AFAk berdintasun gaietan Berdinbidean zerbitzuaren bitartez kuadrilla, udalerri eta kontzejuetan esku hartzeko eredua definitu eta abiaraztea.
5. Arabako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Foru Kontseilua osatzen duten elkarte eta erakundeen eta AFAren arteko gogoeta prozesua sustatu eta bizkortzea.
6. Berdintasunaren eta balio aldaketaren bidean aurrera egiteko sentikortze kanpainak sustatu eta babestea Beldur Barik kanpainan, azaroaren 25ean eta martxoaren 8an.
7. Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzea xede duten deialdi publikoak eta pribatuak birformulatzea eta sustatzea, baliabideak emanez udal eta kuadrillei eta irabazteko asmorik gabeko entitateei, dirulaguntzen deialdiaren bitartez.
8. Berdintasunerako IV. Foru Planaren barruko jarduketen ebaluaziorako eta etengabeko

## LIQUIDACIÓN DEL PRESUPUESTO DE 2017

**Departamento:** 02 DIPUTADO GENERAL

**Programa:** 92 POLITICA PARA LA IGUALDAD

## MEMORIA DEL DEPARTAMENTO

### I. MEMORIA

El objetivo de este Programa Presupuestario se concretaba en las siguientes actuaciones:

1. Diseño, formalización y puesta en marcha de las estructuras interdepartamentales de igualdad, (Comisión Interdepartamental Política, Comisión Interdepartamental Operativa y grupos de trabajo ad hoc), en los departamentos, institutos y organismos autónomos.
2. Impulsar, coordinar, acompañar y dinamizar la incorporación de la perspectiva de género en los procedimientos comunes, así como en las políticas sectoriales de la DFA.
3. Diseño e inicio de la implementación de un plan de formación en materia de igualdad dirigido al personal de la DFA, que incorpore diferentes itinerarios y niveles de especialización, según el tipo de intervención que se realiza.
4. Definición y puesta en marcha del modelo de intervención de la DFA en materia de igualdad en las Cuadrillas, Municipios y Concejos a través del Servicio Berdinbidean.
5. Impulso y dinamización de un proceso de reflexión entre las asociaciones y organizaciones que forman parte del Consejo Foral para la Igualdad de Mujeres y Hombres de Álava y la DFA.
6. Impulsar y apoyar campañas de sensibilización para avanzar en la igualdad y en el cambio de valores en la campaña Beldurbarik, el 25N y el 8 de marzo.
7. Reformulación y fomento de las convocatorias públicas y privadas dirigidas a la consecución de la Igualdad de Mujeres y Hombres, mediante la dotación de recursos a los ayuntamientos y cuadrillas y a las entidades sin ánimo de lucro a través de la convocatoria de ayudas.
8. Diseño de un sistema de evaluación y seguimiento continúo de las actuaciones enmarcadas en el IV

jarraipenerako sistema taxutzea.

9. Arabako kuadrilla guztietan indarkeria matxistaren diagnostikoak egitea, oraintsu egindakoak izan ezik, eta lurraldeko diagnostikoaren dokumentua egitea; halaber, dokumentu orokor hori gizarteratzea agente erantzukideekin.

10. Erantzukidetzaren, bateratzearen eta denboren antolaketa sozialaren ardatzean jarduteko estrategia taxutzea eta EAEko beste erakunde batzuekin koordinatzea.

11. Arabako Emakumeen Jabekuntzarako eta Berdintasunerako LAIA Eskola taxutzea eta Arabako Lurralde Historikoan pixkanaka ezartzea.

## II. PROGRAMATUTAKO HELBURUEN GAUZATZE-MAILA

Azkenean honako hauek izan dira 2017ko ekitaldian garatutako jarduketak:

**1. Berdintasunerako sailarteko egiturak (Sailen Arteko Batzorde Politikoa, Sailen Arteko Batzorde Operatiboa eta ad hoc lantaldeak) taxutu, eratu eta abian jartzea sailetan, institutuetan eta erakunde autonomoetan.**

2017ko bigarren seihilekoan zehar prestatzen joan da lehendik badiren koordinazio eta lankidetza egiturak eraberritzen dituen dekretua. Zehazki, egitura hauek eraberritzen ditu: Gizonen eta Emakumeen Berdintasunerako Sailen Arteko Batzordea, Foru Gobernu Kontseiluaren uztailaren 15eko 74/2008 Foru Dekretuaren bidez arautua, eta arloko batzordeak, Foru Gobernu Kontseiluaren urriaren 13ko 48/2010 Foru Dekretuaren bidez sortuak.

Sailarteko batzorde horren funtzionamenduaren alderdi batzuk hobetze aldera, aldaketak egin behar zitzaizkion, beraren egiturak eta edukiak erronka eta helburu berriei egokitzeko; izan ere, generoaren dimentsioa txertatu behar da egiten diren jarduera guztietan, Foru Aldundiaren kudeaketa publikoaren fase eta maila guztiei helduta. Aldaketa hori Foru Gobernu Kontseiluaren urtarrilaren 23ko 3/2018 Foru Dekretu berrian jasota dago. Dekretu horrek

Plan Foral para la Igualdad.

9. Realizar diagnósticos de violencia machista en todas las cuadrillas de Álava, exceptuando los ya realizados recientemente y elaborar un documento de diagnóstico del territorio, así como socializar dicho documento general con los agentes corresponsables.

10. Diseño de una estrategia de actuación en el eje de corresponsabilidad, conciliación y organización social de los tiempos, así como coordinación con otras instituciones de la CAPV.

11. Diseño e implementación progresiva en el THA de LAIA Eskola – Escuela para la igualdad y el empoderamiento de las mujeres de Álava.

## II. GRADO DE CUMPLIMIENTO DE LOS OBJETIVOS PROGRAMADOS

Las actuaciones finalmente desarrolladas durante el ejercicio 2017 han sido las siguientes:

**1. Diseño, formalización y puesta en marcha de las estructuras interdepartamentales de igualdad, (Comisión Interdepartamental Política, Comisión Interdepartamental Operativa y grupos de trabajo ad hoc), en los departamentos, institutos y organismos autónomos.**

A lo largo del segundo semestre de 2017, se ha ido elaborando el decreto que reforma las estructuras de coordinación y colaboración existentes, en concreto la Comisión Interdepartamental para la Igualdad de Mujeres y Hombres, regulada en el D.F. 74/2008, del Consejo de Gobierno Foral de 15 de julio, y las Comisiones de Área, creadas por el D.F. 48/2019 del Consejo de Gobierno Foral de 13 de octubre.

Con el fin de mejorar algunos aspectos de funcionamiento de la citada Comisión Interdepartamental, era necesario introducir modificaciones para adecuar sus estructuras y contenidos a los nuevos retos y objetivos, que implican la integración de la dimensión de género en cuantas actividades se lleven a cabo, afectando a todas las fases y niveles de la gestión pública foral. Esta modificación queda recogida en el nuevo

Arabako Lurralde Historikoko emakumeen eta gizonen arteko berdintasunerako koordinazio egituren arauketa eta funtzionamendua onartzen ditu.

Dekretu horrek xedatzen du bi batzordek osatuko dutela koordinazio organoa: Sailen Arteko Batzorde Politikoak eta Sailen Arteko Batzorde Operatiboak. Hala, bada, kendu egin dira arloko batzordeak; era berean, proiektuak eta jarduketak gauzatzeko eta horien jarraipena egiteko lantaldeak eratzea aurreikusten da.

**2. AFAko prozedura arruntetan eta politika sektorialetan genero ikuspegia sar dadin sustatzea, sarrera koordinatzea, laguntza ematea eta sarrera dinamizatzea.**

Arabako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Foru Planeko GOBERNU ONA ardatzeko 3. ildo estrategikoak neurri multzo bat proposatzen du helburu hori lortzeko. Besteak beste, honako jarduketa hauek egin dira lorpen horri begira:

- Araudiaren genero eraginaren ebaluazioari buruzko informazio saio bat egin da urriaren 17an.
- Aurrekontuetan genero ikuspegia txertatzeari buruzko informazio saio bat egin da azaroaren 14an.
- Berdintasun Zerbitzuak 20 idazki egin ditu, beste horrenbeste xedapen eman dituzten organoek igorritako txostenen genero eraginaren ebaluazioa egiteko oharrekin, Foru Gobernu Kontseiluaren maiatzaren 23ko 29/2017 Dekretuarekin bat etorriz; dekretu horrek xedapen orokorrak egiteko prozedura, arau eraginari eta genero eraginari buruzko txostenak egiteko gidak eta araugintza teknikari buruzko jarraibideak onartu ditu.
- Sexu aldagaia datuen ekoizpenean eta analisian sartzeko jarraibidea prestatu da.
- GOFErekin koordinazio bilerak egin dira,

Decreto Foral 3/2018, del Consejo de Gobierno Foral de 23 de enero, por el que se aprueba la regulación y el funcionamiento de estructuras de coordinación para la igualdad de mujeres y hombres en el Territorio Histórico de Álava.

Por medio de este decreto el órgano de coordinación queda integrado por dos comisiones: Comisión Interdepartamental Política y Comisión Interdepartamental Operativa, suprimiéndose así las anteriores Comisiones de Área; igualmente, se prevé la constitución de grupos de trabajo para la ejecución y seguimiento de proyectos y actuaciones.

**2. Impulsar, coordinar, acompañar y dinamizar la incorporación de la perspectiva de género en los procedimientos comunes, así como en las políticas sectoriales de la DFA.**

La línea estratégica 3 del eje BUEN GOBIERNO del IV Plan Foral para la Igualdad de Mujeres y Hombres en Álava  propone un conjunto de medidas para la consecución de este objetivo. Entre las actuaciones orientadas a su consecución llevadas a cabo enumeramos las siguientes:

- Una sesión informativa sobre la evaluación de impacto de género en la normativa, que tuvo lugar el 17 de octubre.
- Una sesión informativa sobre la integración de la perspectiva de género en los presupuestos, que tuvo lugar el 14 de noviembre.
- La elaboración, por parte del Servicio de Igualdad de 20 escritos de observaciones para la verificación de la evaluación de impacto de género de los respectivos informes enviados por los órganos emisores de las disposiciones, de acuerdo con el Decreto 29/2017, del Consejo de Gobierno Foral de 23 de mayo, que aprueba el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general, las guías para la elaboración de los informes de impacto normativo y de impacto de género y las directrices de técnica normativa.
- La elaboración de una instrucción para la incorporación de la variable sexo en la producción y análisis de datos.
- Reuniones de coordinación con el IFBS, con el

"Emakumeen aurkako indarkeriak eta beste indarkeria matxista batzuk" ardatzaren barruan bi aldeek egiten dituzten jarduketak koordinatzeko.

- GFErekin bilerak egin dira, 12-18 urte bitarteko nerabeak eta gazteak indarkeria matxistaren aurka sentikortzeko "A GOLPE DE PALABRA / HITZ KOLPEZ" proiektuarekin aurrera jarraitzeko.
- Bilerak egin dira Kirol Zerbitzuarekin, Arabako eskola kirolaren arloan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko.

**3. AFAko langileentzat berdintasunaren arloko prestakuntza plan bat taxutzea eta ezartzen hastea. Plan horrek hainbat ibilbide eta espezializazio maila bilduko ditu, kasuan kasuko esku hartze motaren araberakoak.**

Helburu horrek oinarritzat hartzen ditu, batetik berdintasunaren arloan indarrean dagoen arau esparrua, hala Estatukoa nola autonomia erkidegokoa (3/2007 Lege Organikoaren 51.c artikulua eta 4/2005 Legearen 17.1 artikulua), eta bestetik bere eskumeneko esparru programatikoa (Emakunderen VI. Plana eta IV. Foru Plana), gobernu onarekin zerikusia duten neurrien barruan.

Funtzio Publikoko Idazkaritza Teknikoarekin koordinaturik, berdintasunaren arloko prestakuntza plana egin da AFAko langileentzat. Planaren egiturak hiru maila ditu: oinarrizkoa, sakontzekoa eta espezializaziokoa. Bestalde, zenbait ibilbide egin daitezke plan horretan. Oinarrizko prestakuntza lortu behar da beste bi mailetara igotzeko, eta goiko maila horietan norberaren lanpostuari eta eginkizunei lotutako prestakuntza eskaintzen da (prozedurak eta politika sektorialak).

Planaren bitartez, aurreikusita dago sei urteren buruan AFAko langile guztiek berdintasunari buruz behar adinako gaikuntza edukiko dutela euren lanbide jardueretan genero ikuspegia txertatu ahal izateko.

Prestakuntzak nondik jo behar duen zehaztearren, inkesta baten bitartez informazioa bildu da, gaur egun AFAn lanean dihardutenek aldez aurretik jaso

objeto de coordinar las actuaciones que por ambas partes se realizan dentro del eje de Violencias contra las mujeres y otras violencias machistas.

- Reuniones con el IFJ para continuar con el proyecto de sensibilización contra la violencia machista en adolescentes y jóvenes entre los 12 y los 18 años "A GOLPE DE PALABRA / HITZ KOLPEZ".
- Reuniones con el Servicio de Deportes, para promover la igualdad de mujeres y hombres en el ámbito del deporte escolar de Álava.

**3. Diseño e inicio de la implementación de un plan de formación en materia de igualdad dirigido al personal de la DFA, que incorpore diferentes itinerarios y niveles de especialización, según el tipo de intervención que se realiza.**

Este objetivo encuentra su fundamentación en el marco normativo vigente en materia de igualdad tanto estatal como autonómico (art. 51.c de la Ley orgánica 3/2007 y art. 17.1 de la Ley 4/2005) y en el marco programático de su competencia (VI Plan de Emakunde y IV Plan Foral), dentro de las medidas relacionadas con el Buen Gobierno.

En coordinación con la Secretaría Técnica de Función Pública se ha llevado a cabo la elaboración de un Plan de Formación en materia de igualdad dirigido al personal de la DFA. El plan está estructurado en tres niveles: básico, profundización y especialización. A su vez, incorpora diferentes itinerarios, siendo necesario tener una formación básica antes de acceder a los otros dos niveles, que ofrecen formación asociada al puesto y funciones que se desempeñan (procedimientos y políticas sectoriales).

El plan está previsto para que en el período de seis años todo el personal de la DFA tenga la capacitación suficiente en materia de igualdad con el fin de integrar la perspectiva de género en sus actividades profesionales.

Con el fin de orientar la formación del personal se ha recabado información por medio de una encuesta para disponer de datos sobre la formación que

duten prestakuntzari buruzko datuak edukitzeko.

**4. AFAk berdintasun gaietan Berdinbidean zerbitzuaren bitartez kuadrilla, udalerri eta kontzejuetan esku hartzeko eredua definitu eta abiaraztea.**

Egungo abagune politikoari eta AFAko gobernuak Arabako Lurralde Historikoko emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alde hartu duen konpromisoari esker, nabarmen gehitu dira baliabide materialak, giza baliabideak eta baliabide teknikoak, eta, horrenbestez, hainbat proiektu eta jarduketa garatzen ari dira kuadrilla, udalerri eta kontzejuetan BERDINBIDEAN zerbitzuaren bitartez.

Hileroko bilerak egin dira. Aldundiko Berdintasun Zerbitzuak, kuadrilletako teknikariek eta laguntzaile teknikoek parte hartu dute bilera horietan. Saio horietan, batez ere, IV. Foru Planean jasotako lau ardatz estrategikoen ildotik kuadrilletan garatu diren programa operatiboen jarraipen eta koordinazio lanak egiten dira.

Bakarkako gainbegiratze lanaz gainera, laguntzaile teknikoek sei bilera izan dituzte maiatzetik abendura bitartean. Bilera horietako lauren helburua kuadrilletan *mainstreaming*a ezartzeko diagnostikoa eta planifikazioa egitea izan da; beste bilera bat egin da Beldur Barik-ekin koordinatzeko, eta beste bat 2018rako ekintzak planifikatzeko.

Gainera, Berdinsarearekin koordinatzeko bi bilera egin dira, sarean integratzeari begira.

**5. Arabako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Foru Kontseilua osatzen duten elkarte eta erakundeen eta AFAren arteko gogoeta prozesua sustatu eta bizkortzea.**

2017. urtean zehar Arabako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Foru Kontseilua biziberritzeko parte-hartze prozesua sustatu da, Berdintasunerako IV. Foru Planeko “Ahalduntzea” ardatzeko 3.1 neurriari erantzunez. Prozesu horretan,

previamente ha recibido el personal que actualmente trabaja en la DFA.

**4. Definición y puesta en marcha del modelo de intervención de la DFA en materia de igualdad en las Cuadrillas, Municipios y Concejos a través del Servicio Berdinbidean.**

La actual coyuntura política y el compromiso del gobierno de la DFA a favor de la igualdad de mujeres y hombres en el territorio histórico de Álava ha dado lugar a un significativo aumento de los recursos materiales, humanos y técnicos, cuyo resultado es el incremento de proyectos y actuaciones que se están desarrollando en las cuadrillas, municipios y concejos por medio del servicio BERDINBIDEAN.

Se han realizado reuniones mensuales con la participación del Servicio de Igualdad de la Diputación, las técnicas de las cuadrillas y la asistencia técnica. El contenido de las sesiones consiste principalmente en el seguimiento y coordinación de los programas operativos que se han desarrollado en las cuadrillas y que abarcan los cuatro ejes estratégicos recogidos en el IV Plan Foral.

Aparte de la supervisión individual, la asistencia técnica ha mantenido seis reuniones conjuntas entre mayo y diciembre. Cuatro de ellas se han orientado al diagnóstico y planificación para la implantación del *mainstreaming* en las respectivas cuadrillas, otra a la coordinación con Beldur Barik y otra a la planificación de las acciones para el 2018.

Además, se han mantenido dos reuniones de coordinación con Berdinsarea, con vistas a la integración en la red.

**5. Impulso y dinamización de un proceso de reflexión entre las asociaciones y organizaciones que forman parte del Consejo Foral para la Igualdad de Mujeres y Hombres de Álava y la DFA.**

A lo largo del año 2017 se ha impulsado un proceso participativo de revitalización del Consejo Foral para la Igualdad de Mujeres y Hombres de Álava, en respuesta a la medida 3.1 del eje de Empoderamiento del IV Plan Foral para la Igualdad.

zehazki, Talde Eragilearen hiru tailer egin dira (Diputatu Nagusiaren Saileko zuzendariak, Berdintasun Zerbitzuak eta Arabako kuadrilla eta udaletako teknikariek osatzen dute talde hori); tailer bat egin da kuadrilletako bakoitzean, berdintasuna sustatzeko helburuarekin, eta emakumeen elkarteek parte hartu dute; eta Berdintasunerako Foru Kontseiluak 2017ko irailaren 14an bilkura egin zuen ARTIUM museoan, eta 33 pertsonak parte hartu zuten, guztira 15 elkarteren izenean.

Goian aipatutako ekintzetan baterako hausnarketa egin da berdintasunaren arloko politika publikoen helburuei, eginkizunei, osaerari, haietan parte hartzeko bideei eta haien eraginari buruz, eta esparru dokumentu batean bildu dira ondorioak. Dokumentu horretatik abiatuta taxutuko dira 2018an zehar garatu beharreko jarduketak.

**6. Berdintasunaren eta balio aldaketaren bidean aurrera egiteko sentikortze kanpainak sustatu eta babestea Beldur Barik kanpainan, azaroaren 25ean eta martxoaren 8an.**

Arabako Foru Aldundiak aldian-aldian hitzarmena sinatzen du Emakunderekin genero indarkeriaren prebentzio eta sentsibilizazio programa ezartzeko. Programa hori, Beldur Barik, erakundearteko lankidetza zabalarekin egiten da. Helburua emakume gazteen ahalduntzea eta gazte guztiek jarrera matxistak desagerrarazten parte hartzea bultzatzea da. Hala, programa horren ekintza nagusiaren barruan, 2017an Araban 53 lan aurkeztu dira, udalerri hauetakoak: Vitoria-Gasteiz (23), Laudio (16), Amurrio (11), Agurain (1), Kanpezu (1) eta Oion (1).

Martxoaren 8rako, Emakumeen Nazioarteko Egunerako, Foru Gobernu Kontseiluak erakunde adierazpen bat onartu zuen, eta AFAk martxoaren 4an ekitaldia egin zuen Artiumen. Arabako lurraldeko erakundeetako ordezkariek, politikariek eta emakumeen kolektiboek parte hartu zuten. Edizio horretako leloa hauxe izan zen: “Emakume errefuxiatuak munduari aurre eginez / Mujeres refugiadas plantando cara al mundo”. Kanpainan bereziki nabarmendu ziren emakume errefuxiatuen balioen aintzatespena eta haien eskubideen

Este proceso se ha concretado en la realización de tres talleres del Grupo Motor formado por la Directora del Departamento del Diputado General, el Servicio de Igualdad y las técnicas de las Cuadrillas y Municipios de Álava; un taller en cada una de las cuadrillas, donde han participado asociaciones de mujeres, cuyos objetivos son la promoción de la igualdad; y una sesión del Consejo Foral para la Igualdad, que tuvo lugar en el Museo ARTIUM el día 14 de septiembre de 2017, en el que participaron 33 personas de un total de 15 asociaciones.

Con las acciones mencionadas se ha realizado una reflexión conjunta sobre los objetivos, funciones, composición y vías para la participación e incidencia en las políticas públicas en materia de igualdad, cuyas conclusiones se han recogido en un documento marco, a partir del cual se diseñarán las actuaciones a desarrollar a lo largo de 2018.

**6. Impulsar y apoyar campañas de sensibilización para avanzar en la igualdad y en el cambio de valores en la campaña Beldur Barik, el 25N y el 8 de marzo.**

La Diputación Foral de Álava viene firmando un convenio con Emakunde para la implementación del programa de prevención y sensibilización en violencia de género. Este programa, Beldur Barik, se realiza con una amplia colaboración interinstitucional. El objetivo es impulsar el empoderamiento de las jóvenes y la participación de la juventud en general en la erradicación de actitudes machistas. Así, dentro de la acción principal de este programa, en 2017 en Álava se han presentado 53 trabajos de los municipios de Vitoria-Gasteiz (23), Laudio (16), Amurrio (11), Agurain (1), Kanpezu (1) y Oion (1).

Con motivo del 8 de marzo, Día Internacional de las Mujeres, el Consejo de Gobierno Foral aprobó una declaración institucional y la DFA realizó un acto en el Artium el día 4 de marzo, en el que se contó con la participación de representantes institucionales, personal político y colectivos de mujeres del territorio alavés. El lema en esta edición, fue “Emakume errefuxiatuak munduari aurre eginez / Mujeres refugiadas plantando cara al mundo”. En la campaña se puso el acento en el reconocimiento de los valores de las mujeres refugiadas y la

aldarrikapena. Ohiko bideak erabili ziren kanpainaren publizitatea egiteko: prentsa oharra eta iragarkiak, irratiko tarteak, kartelak, pankartak eta abar.

Emakumeenganako indarkeriaren aurkako nazioarteko egunean (azaroak 25), Foru Gobernu Kontseiluak erakunde adierazpen bat onartu zuen eta elkarretaratze isila deitu zuen Aldundiaren Jauregiaren eskaileretan, erakundeko langile guztientzat nahiz herritar guztientzat. “Arabako kuadrilletako indarkeria matxistaren egoeraren diagnostikoa” izan zen kanpainaren ikuspuntuaren orientatzailea, eta arreta berezia jarri zien indarkeria matxistaren adierazpen jakin batzuei, normalizatuta edo, are okerrago, halakotzat identifikatu gabe dauden horiei. Edizio horretan lelo hau erabili zen: “Bortizkeria matxistak geruza asko ditu / La violencia machista tiene muchas capas”. Lurraldeko udal eta kuadrillen ekimenak babestu ziren, eta kanpainaren zabalkunderako ohiko bideak erabili ziren: prentsa oharra eta iragarkiak, irratiko tarteak, autobusak eta markesinak, kartelak, txapak, pankartak eta abar.

7. **Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzea xede duten deialdi publikoak eta pribatuak birformulatzea eta sustatzea, baliabideak emanez udal eta kuadrillei eta irabazteko asmorik gabeko entitateei, dirulaguntzen deialdiaren bitartez.**

- *Laguntzak udal eta kuadrillentzat, Arabako Lurralde Historikoan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko programak edota jarduerak egiteko:*

  Deialdi horren bidez 14 udal eta 6 kuadrillatako 20 proiektuek jaso dute dirulaguntza, 90.000 euro guztira. Garatutako jardueretako asko oroipen egunetakoak izan dira, esaterako martxoaren 8koak, ekainaren 28koak edo azaroaren 25ekoak. Gehikuntza nabaritu da emakumeen ahalduntzearekin eta parte hartze soziopolitikoarekin zerikusia duten jarduketetan, eta murrizketa, berriz, gobernantzari eta erantzukidetzari buruzko ardatzaren barruko jarduketetan.



reivindicación de sus derechos. Se dio publicidad a la campaña a través de los medios habituales: nota de prensa y anuncios, cuñas de radio, carteles, pancartas, etc.

El Día Internacional contra la violencia hacia las mujeres, 25 de noviembre, el Consejo de Gobierno Foral aprobó igualmente una declaración institucional y convocó una concentración silenciosa en la escalinata de Palacio de la Diputación dirigida a todo el personal de la institución, así como a la ciudadanía en general. El “Diagnóstico de situación de violencia machista de las cuadrillas de Álava”, orientó el enfoque de la campaña, que puso el énfasis en esas manifestaciones de violencia machista que están normalizadas e incluso no identificadas como tales. El lema de esta edición fue: “Bortizkeria matxistak geruza asko ditu / La violencia machista tiene muchas capas”. Se apoyaron las iniciativas de municipios y cuadrillas del territorio y se dio publicidad a la campaña a través de los medios habituales: nota de prensa y anuncios, cuñas de radio, autobuses y marquesinas, carteles, chapas, pancartas, etc.

7. **Reformulación y fomento de las convocatorias públicas y privadas dirigidas a la consecución de la Igualdad de Mujeres y Hombres, mediante la dotación de recursos a los ayuntamientos y cuadrillas y a las entidades sin ánimo de lucro a través de la convocatoria de ayudas.**

- *Ayudas dirigidas a Ayuntamientos y Cuadrillas para el desarrollo de programas y/o actividades destinadas a la consecución de la Igualdad de Mujeres y Hombres en el Territorio Histórico de Álava:*

  A través de esta convocatoria se han subvencionado un total de 20 proyectos de 14 municipios y de 6 Cuadrillas por un total de 90.000,00 €. Muchas de las actividades desarrolladas se encuentran enmarcadas en los días de conmemoración como son el 8 de marzo, 28 de junio y 25 de noviembre. Se observa un incremento en las actuaciones relacionadas con el empoderamiento y participación sociopolítica de las mujeres y una disminución de las actuaciones enmarcadas en el eje de gobernanza y corresponsabilidad.

Burutu diren jarduerek helburu hauek izan dituzte: gobernantzan genero ikuspegia txertatzea (% 12), emakumeen ahalduntzea eta parte hartze soziopolitikoa (% 58,5), bateratzearen eta erantzukidetzaren sustapena (% 4,5), eta sentikortzea, emakumeen aurkako indarkeriari aurrea hartzea eta indarkeriarik gabeko harremanak garatzea (% 25).

- *Laguntzak irabazteko asmorik gabeko elkarte eta entitateentzat, Arabako Lurralde Historikoan emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna lortzeko programak edota jarduerak egiteko:*

Lurraldean proiektuak sustatzeko eta proiektuok gauzatzea errazteko asmoz, deialdia birformulatu egin da, puntuazio handiagoa emanez egoitza Gasteiztik kanpoko herri batean duten eta proiektua hiriburutik kanpo garatu duten elkarteei. 2016ko deialdiaren aldean, proiektuak gauzatzeko epea aldatu egin da eta proiektuak 2017ko abenduaren 31 baino beranduago amaitu daitezke, betiere proiektua urte horretan bertan hasten bada eta gehienez ere 12 hilabete irauten badu.

Deialdi horren bidez irabazi asmorik gabeko elkarte eta entitateek aurkeztutako 43 proiekturi eman zaie dirulaguntza, 185.000 euro guztira, lehia araubidean. Finantzatutako jarduketak, batez ere, sentsibilizaziokoak, prestakuntzakoak eta egun gogoangarriak (martxoaren 8a eta azaroaren 25a) ospatzekoak izan dira. Dirulaguntza jaso duten programen helburuei dagokienez, batez ere emakumeen autonomiaren eta ahalduntzearen ardatza (% 53) eta emakumeen aurkako indarkeriaren ardatza (% 30) izan dira programen xede. Lehenengo aldiz parte hartu dute ikastetxeetako guraso elkarte batzuek, baterako hezkuntzarako eta tratu onerako programekin.

**8. Berdintasunerako IV. Foru Planaren barruko jarduketen ebaluaziorako eta etengabeko jarraipenerako sistema taxutzea.**

Las actividades llevadas a cabo han estado dirigidas a la incorporación de la perspectiva de género en la gobernanza (12%), al empoderamiento y la participación sociopolítica de las mujeres (58,5%), al fomento de la conciliación y corresponsabilidad (4,5%) y a la sensibilización y prevención de la violencia contra las mujeres y desarrollo de relaciones sin violencia (25%).

- *Ayudas dirigidas a Asociaciones y Entidades sin ánimo de lucro para el desarrollo de programas y/o actividades destinadas a la consecución de la Igualdad de Mujeres y Hombres en el Territorio Histórico de Álava:*

Con el fin de promover proyectos en el territorio y de facilitar la ejecución de los mismos se ha reformulado la convocatoria, concediendo una mayor puntuación a aquellas asociaciones que tienen su sede en localidades que no sean Vitoria-Gasteiz, y que han desarrollado el proyecto fuera de la capital. Con respecto a la convocatoria del 2016, ha habido una modificación en cuanto a la fecha de ejecución, pudiendo esta finalizar más allá del 31 de diciembre de 2017, siempre y cuando el proyecto comience en ese mismo año y siendo su duración máxima 12 meses.

A través de esta convocatoria se han subvencionado, en régimen de concurrencia competitiva, un total de 43 proyectos presentados por asociaciones y entidades sin ánimo de lucro por un total de 185.000,00 €. Las actuaciones financiadas han sido principalmente de sensibilización, formación y conmemoración de los días 8 de marzo y 25 de noviembre. En relación con los objetivos de los programas subvencionables, estos se han orientado principalmente al eje autonomía y empoderamiento de las mujeres (53%) y al de violencia contra las mujeres (30%). Han participado por primera vez varias asociaciones de madres y padres de centros educativos, con programas de coeducación y buen trato.

**8. Diseño de un sistema de evaluación y seguimiento continúo de las actuaciones enmarcadas en el IV Plan Foral para la Igualdad.**

IV. Foru Planak proiektuaren ziklo oso baten aplikaziotik abiatuta ezartzen du bere jarraipen eta ebaluazio mekanismoa. Ziklo horretan, programazio–gauzatze-jarraipena eta ebaluazioa elkar atzeraelikatzen duten prozesuak dira.

Esparru horretan, planeko prozesuen eta emaitzen hobekuntzari begira planteatzen da ebaluazioa lehentasunez, eta ez burututako ekintzei buruz kontuak emateko unean uneko elementu soil gisa. Hori agerian geratzen da ebaluazioaren helburu nagusien definizioan:

- Planaren helburuen betetze maila ezagutzea
- Planaren prozesuaren garapena aztertzea
- Ekintzek aurrera jarraituko duten hausnartzea
- Aukera berdintasuna sustatu eta bermatzeko ekintzak behar dituzten beharrizan berriak identifikatzea.

Horretarako, informazio eta jarraipen sistemen azterketa egin da, eta tresna bat diseinatu da, barnean hartzen dituena, batetik sistema horien analisia, eta bestetik etengabeko ebaluazio prozesu baten oinarriak eta ebaluazio espezifiko edo fokalen (IV. Planaren garapena osatzen duten proiektuei dagozkien ebaluazioen) planifikazioa. Tresna horrek, emaitzei ez ezik, prozesuari eta eraginari ere erreparatzen die.

9. **Arabako kuadrilla guztietan indarkeria matxistaren diagnostikoak egitea, oraintsu egindakoak izan ezik, eta lurraldeko diagnostikoaren dokumentua egitea; halaber, dokumentu orokor hori gizarteratzea agente erantzukideekin. Eta indarkeriaren ardatzeko beste ekintza batzuk.**

Helburu horrek Arabako Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Foru Planeko IM 1.1 neurriari erantzuten dio. Jada 2013. urtean, Lautadako kuadrillan, indarkeria matxistaren diagnostikoa egiten hasi zen, gero Guardia - Arabako Errioxan (2015), Añanan eta Gorbeialdean (2016) jarraitu zen egiten hurrenez hurren, eta azkenik Aiarako eta Kanpezu - Arabako Mendialdeko kuadrilletan



El IV Plan Foral establece su mecanismo de seguimiento y evaluación a partir de la aplicación de un ciclo completo de proyecto en el que programación–ejecución-seguimiento y evaluación son procesos que se retroalimentan entre sí.

En este marco, la evaluación se plantea con una finalidad preponderante en la mejora de los procesos y resultados del Plan y no sólo como un elemento puntual de rendición de cuentas sobre las acciones ejecutadas, tal y como queda de manifiesto en la definición de sus grandes objetivos:

- Conocer el grado de cumplimiento de los objetivos del Plan
- Analizar el desarrollo del proceso del Plan
- Reflexionar sobre la continuidad de las acciones
- Identificar nuevas necesidades que requieran acciones para fomentar y garantizar la igualdad de oportunidades.

Para ello se ha realizado un análisis de los sistemas de información y seguimiento y se ha diseñado una herramienta que incluye, por un lado, el análisis de los mismos, y por otro, las bases de un proceso de evaluación continua y la planificación de evaluaciones específicas o focales (referidas a los diferentes proyectos que conforman el desarrollo del IV Plan), que atienda no solo a los resultados, sino también al proceso y al impacto.

**9. Realizar diagnósticos de violencia machista en todas las cuadrillas de Álava, exceptuando los ya realizados recientemente y elaborar un documento de diagnóstico del territorio, así como socializar dicho documento general con los agentes corresponsables. Y otras acciones enmarcadas dentro del eje de violencia.**

Este objetivo responde a la medida VM 1.1, del IV Plan Foral para la Igualdad de Mujeres y Hombres en Álava. Habiéndose iniciado ya en el año 2013, en la Cuadrilla de Lautada, el diagnóstico de violencia machista, y habiendo continuado sucesivamente en las cuadrillas de Laguardia-Rioja Alavesa (2015), Añana y Gorbeialdea (2016), se ha culminado con las cuadrillas de Ayala y Campezo-Montaña

amaitu da.

Gainera, “Arabako kuadrillak. INDARKERIA MATXISTAREN EGOERAREN DIAGNOSTIKOA” izenburuko dokumentua argitaratu da. Dokumentu hori Clara Campoamor elkarteak antolatutako jardunaldietan aurkeztu da Gasteizen eta Murgian azaroan: “Genero indarkeriaren aurka borrokatzeko eta hura gainditzeko metodo berriak Araban” izan dituzte aztergai jardunaldietan.

Halaber, “Emakumeen aurkako indarkeriak eta beste indarkeria matxista batzuk” ardatzean, “A golpe de palabra / Hitz kolpez” kanpaina gauzatu da, nerabeen eta gazteen artean indarkeria matxistaren arloan prebenitu eta sentsibilizatzeko helburuz. Kanpaina horrek antzerkia darabil sentsibilizazioko tresna berritzaile gisa; ondoren ikasleen artean eztabaidatzeko esparru bat eta gazteen arteko indarkeriako aditu bat dakartza.

Ekintza gauzatu eta gero, indarkeria mota horiei buruzko sentsibilizazioa eta prebentzioa ikasgelan lantzen jarraitzeko berariazko materialak eskaini zaizkie ikastetxeei.

Guztira 44 jarduketa egin dira probintziako 15 ikastetxetan.

Gasteizko Berritzeguneak irakasleekiko bi saio eskatu zituen, bere prestakuntza jardueren barruan. Saio bana egin zen Gasteizen eta Laudion.

Ildo beretik, Mesedetako ikastetxeak eskatu zuen jarduketa hori egin zedila ikastetxeko familiekin. Ekintza hori aitzindaria da proiektuaren barruan, zeinak jada hiru edizio izan baititu. Hurrengo edizioan, 2018an, hura berriro egitea komeni den baloratuko da.

**10. Erantzukidetzaren, bateratzearen eta denboren antolaketa sozialaren ardatzean jarduteko estrategia taxutzea eta EAEko beste erakunde batzuekin koordinatzea.**

Aztertzen ari dira Arabako Foru Aldundiak lan hitzarmenean ezartzen dituen neurriak, 2019. urtean egingo den Berdintasunerako Barne Plana prestatzeari begira.

Alavesa.

Además, se ha publicado el documento “Cuadrillas de Araba. DIAGNÓSTICO DE SITUACIÓN DE LA VIOLENCIA MACHISTA”. Este documento se ha presentado en las jornadas organizadas por la asociación Clara Campoamor en Gasteiz y en Murguía en el mes de noviembre: “Los nuevos retos de lucha contra la violencia de género y su superación en Álava”,

Asimismo, en el eje de Violencias contra las mujeres y otras violencias machistas, se ha ejecutado la campaña “A golpe de palabra / Hitz kolpez”, con el objeto de prevenir y sensibilizar en materia de violencia machista entre adolescentes y jóvenes. Esta campaña aporta el teatro como herramienta innovadora en la sensibilización, acompañada por un espacio para el debate posterior entre el alumnado y una experta en violencia en la juventud.

Tras la realización de la acción, se ha facilitado a los centros escolares, material ad hoc para continuar trabajando la sensibilización y prevención de dichas violencias en el aula.

Se han realizado 44 actuaciones en 15 centros de la provincia.

El Berritzegune de Gasteiz solicitó 2 sesiones con profesorado, dentro de sus actividades formativas. Se realizaron sendas sesiones en Gasteiz y en Llodio.

En la misma línea, el Centro Mercedarias solicitó la realización de esta actuación con las familias del centro. Esta acción es pionera dentro de este proyecto, que cuenta ya con 3 ediciones. Se valorará la conveniencia de realizarla en la próxima edición de 2018.

**10. Diseño de una estrategia de actuación en el eje de corresponsabilidad, conciliación y organización social de los tiempos, así como coordinación con otras instituciones de la CAPV.**

Se está en proceso de análisis de las medidas que la Diputación Foral de Álava establece en el convenio laboral, de cara a la elaboración del Plan Interno de Igualdad que se realizará en el año 2019.

Ildo berean, hasiak dira pobreziaren feminizazioari buruzko azterlan bat taxutzeko lanak. Azterlan horrek lurraldean zainketa formalez eta ez formalez arduratzearen errealitatea izango du ikergai. Azterlan horren bitartez lortuko den informazioak gakoak emango ditu denborak antolatzearen eta zainketen planifikazio berria egitearen aldeko neurriak ezartzeko.

**11. Arabako Emakumeen Jabekuntzarako eta Berdintasunerako LAIA Eskola taxutzea eta Arabako Lurralde Historikoan pixkanaka ezartzea.**

LAIA Eskolak 2016ko irailaren 30ean eta Arabako Lautadako kuadrillan hasi zuen bere ibilbidea Arabako Lurralde Historikoan. Lurralde osoan gizarteratzeko prozesua 2017an osatu da, aurkezpena eginez kuadrilletan:

- Añana: 2017ko urriaren 7a.
- Kanpezu - Arabako Mendialdea: 2017ko urriaren 21a
- Guardia - Arabako Errioxa: 2017ko urriaren 26a
- Gorbeialdea: 2017ko urriaren 27a
- Aiara: 2017ko urriaren 28a

Egoitza edo kokaleku fisiko zehatzik gabe, Araba osoan ari da LAIA Eskola, bai esparru pertsonalean bai soziopolitikoan emakumeen autonomia eta ahalduntzea sustatzen dituzten jarduerak egiten diren leku guztietan. Ekintza estrategikoak garatzen ditu, hala nola ELKARRIZKETAK, AUTODEFENTSA FEMINISTAKO TAILERRAK, IRAKURKETA KLUBAK eta ZINEFORUMAK. Gainera beste hainbat jarduera egin dira kuadrilletan, kuadrilla bakoitzeko berdintasunaren arloko egiturek sustatuak batzuk, elkarteek sustatuak besteak, dirulaguntzen deialdien bitartez.

Esan bezala, LAIA Eskolaren xedea da lagun egitea Arabako Lurralde Historikoko emakumeen ahalduntze prozesuetan, emakumeen parte hartze soziopolitikoa sendotzen duten horietan. Bada, aipatu beharra dago kontzejuetako hauteskundeetan



En la misma línea se han iniciado los trabajos para el diseño de un estudio sobre la feminización de la pobreza, que contemple la realidad de asunción de cuidados formales e informales en el territorio. La información obtenida a través de este estudio aportará claves para implementar medidas en pro de la organización de los tiempos y una nueva planificación de los cuidados.

**11. Diseño e implementación progresiva en el THA de LAIA Eskola – Escuela para la igualdad y el empoderamiento de las mujeres de Álava.**

LAIA Eskola inició su andadura en el Territorio Histórico de Álava el 30 de septiembre de 2016 en la Cuadrilla de Llanada Alavesa. En el 2017 se ha completado el proceso de socialización en todo el territorio, por medio de la presentación en las diferentes cuadrillas:

- Añana: 7 de octubre de 2017
- Campezo-Montaña Alavesa: 21 de octubre de 2017
- Laguardia-Rioja Alavesa: 26 de octubre de 2017
- Gorbeialdea: 27 de octubre de 2017
- Ayala: 28 de octubre de 2017

Sin una sede o ubicación física determinada, LAIA Eskola está presente en toda Álava, allí donde se realizan actividades que promueven la autonomía y el empoderamiento de las mujeres tanto en el ámbito personal como sociopolítico, desarrollando acciones estratégicas como DIÁLOGOS CON, TALLERES DE AUTODEFENSA FEMINISTA, CLUBS DE LECTURA y CINE-FÓRUM. Además se han realizado otras muchas actividades en las cuadrillas, impulsadas bien desde las estructuras de Igualdad de cada cuadrilla, bien desde las asociaciones, a través de las convocatorias de subvenciones.

Si el objetivo de LAIA Eskola es el de acompañar procesos de empoderamiento de las mujeres del Territorio Histórico de Álava que fortalezcan su participación socio-política, es necesario mencionar el impulso de las candidaturas y de la participación

emakumeen hautagaitzei eta parte hartzeari bultzada eman zaiela batzar irekien deialdiaren bidez. Hauteskunde horiek 2017ko azaroaren 26an egin ziren.

LAIA Eskolaren jarduerak informazio liburuxka baten bitartez argitaratzen dira. Horrez gain, badu bere gune birtuala www.laiaeskola.eus web orriaren bitartez, sare sozialetako (Twitter eta Facebook) zabalkundearen bidez eta aldizkari digitalerako harpidetzaren bidez.

Oro har, 2017an Arabako Lurralde Historikoko emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren sustapenak bultzada esanguratsua jaso du eta jarduketak ugaritu egin dira. Horretarako bereziki lagungarria izan da kuadrilletan berdintasunerako egiturak egotea eta LAIA Eskola ezarri izana. Beraz, helburuen betetze maila oso ona izan da, honako memoria honetan deskribatzen joan den bezala.

de las mujeres en las elecciones a los Concejos por medio de la convocatoria de asambleas abiertas. Estas elecciones tuvieron lugar el 26 de noviembre de 2017.

Aparte de la publicación de las actividades de LAIA Eskola por medio de un folleto informativo, cuenta con su espacio virtual a través de la web www.laiaeskola.eus, con la difusión en las redes sociales (twiter y Facebook) y con la suscripción al boletín digital.

En conjunto, el 2017 ha supuesto un impulso significativo de la promoción de la igualdad de mujeres y hombres en el Territorio Histórico de Álava y del incremento de actuaciones. A ello ha contribuido singularmente la existencia de estructuras de igualdad en las cuadrillas y la implantación de LAIA Eskola, por lo que el grado de cumplimiento de los objetivos resulta altamente satisfactorio, tal como se ha ido describiendo a lo largo de la presente memoria.